50 URTE **"ESKOLA BERRIA"** AMESTEN*

1970-1971 ikasturtean hasi zuen bere ibilbidea Langile ikastolak. Herritar batek Elizatxon utzitako lokal batean eman zituzten lehenengo eskolak, 8-9 ikaslerekin. Egun, 700 ikasletik gora ditu, eta herriko hiru txokotan ditu gelak: Laubidietan, Meaben eta Bidebietan. Lau irakaslerekin hitz egin zuen Kronikak, historiaz eta 2019-2020 ikasturtean zehar ospatutako urteurrenaz.

"Pauso ausarta" eman zuten 1970ean bi irakaslek eta guraso talde batek, "ordura arteko eskola mota (eskola tradizionala) gainditzeko borondate garbiarekin". Pauso horren ondorio jaio zen egun Langile Ikastola bezala ezagutzen duguna duela 50 urte, eta modu berezian kontatzen dute une honetan ikastolan irakasle dihardutenek.

Izan ere, ikasturte berezia dute aurretik, eta hori islatzen saiatu dira ikasle, irakasle eta familiak direnak eta ez direnak. 50. urteurrena ospatzeko egitarau bereziari azaroaren 15ean eman zioten hasiera, eta 2020ko lehenengo hilabetetan zehar luzatu zen, COVID-19 gaitzaren eraginek ahalbidetu zuen arte.

* Rekondo Urkia, Lide. KRONIKA. 2019/11/09

Elizatxo auzoan izandako lehenengo ikastaldea.

Aldaketa garaia, baita irakaskuntzan ere

1970-1971koa izan zuten aurreneko ikasturtea egun Langile Ikastola deneko lehenengo ikasleek. Diotenez, 8-9 bat ikasle aritu ziren hasiera horretan, hiru irakaslerekin.

Ikastola bezala, bakarra zegoen momentu horretan, Urumea, eta handik atera ziren hiru irakasle horietatik bi: "Irakasle horiek kontatzen zutena zen han ez zeukatela berrikuntzarik sartzeko aukerarik", kontatzen dute egun irakasle direnek.

Momentu hartan, bai politikoki, bai irakaskuntzaren bueltan gertatzen ari zenak asko lagundu zuen hasiera horretan: "Kontuan izan behar da Frankismoaren bukaera zela, eta politikoki oso egoera berezia zela. Ezkerreko jendeak bereziki, horren aurka lan handia egin zuen arlo guztietan, baita irakaskuntzan ere. Gainera, Estatu espainiarrean, eta bereziki, Katalunian, bazegoen Rosa Sensat mugimendu pedagogiko potente bat, hori egosten ari zena", azaltzen dute.

Giro hori ere iritsi zen Euskal Herrira: "Hemen *Gordailu* irakasle mugimendua zegoen, saiakera egiten ari zena eskolak berriztatzeko, euskarazko materiala sortzeko...".

Testuinguru horretan jaio zen, beraz, egun Langile Ikastola dena. Eta irakaslerena ez ezik, gurasoek sorrera horretan egindako ekarpena ere aldarrikatu dute: "Gurasoen eskuzabaltasuna ikaragarria izan zen; ekarpena handia izan zen, bai ideologikoa, baita ekonomikoa ere".

"Sektore guztiei irekia, publikoa, doakoa eta euskalduna"

Hura sortzeko pausoa eman aurretik, ordea, eskolaren nondik norakoak hausnartzen aritu ziren, bai guraso, irakasle eta baita herritar asko ere. Bertan, "eskola berri baten filosofia eztabaidatu, eta ikuspegi berri bat praktikara eramateko ahalegina egin zen", ikastolaren hezkuntza proiektuaren arabera.

Hori kontutan hartuta, eskolaren izaera definitu zuten; euren ustez, eskolak izan behar zuen "sektore guztiei irekia, publikoa, doakoa eta euskalduna". Eta ondorengo beharrei erantzungo zien: "Eskola euskalduna izan behar zuela, inguruarekin harreman estuan egon behar zuen eskola bat, familia eta eskolaren arteko harremana bultzatuko zuena, *Freinet*en lana aztertu ondoren *Metodo Naturala* praktikan jarriko zuena, kudeaketa demokratiko eta parte-hartzailea bermatuko zuena eta publikoa".

Hori zehaztuta, 1976. urtean legeztatu zen kooperatiba gisa, eta *Langile* izena hartu zuen, eta aurretik aipatutako oinarriak finkatuta geratu ziren. Nahiz eta kooperatiba gisa eratu, legeztatzeko modu bat besterik ez zen izan; eta argitzen dute: "Langilen ez da inoiz kuota bat kobratu, beti izan da boluntarioa eta diru-sarreren edo borondatearen araberakoa. Horrekin, nolabait, ziurtatzen zen denontzako eskola izan behar zuela", argitzen dute.

Florida auzoan (villa Hermosa edo Armendariz, eta prefabrikatua) eta Zikuñaga auzoan izandako kokalekuak.

Lokalen inguruan, aurreneko zailtasuna

Eskolaren inguruan hausnartu zutenean, ikastetxearen eraikinen eta kokapenaren inguruan ere eztabaidatu zuten: "Ez zen inolako masifikaziorik nahi (ez gela barrenean, ezta ikastetxearen gela kopuruari dagokionez ere), ezta inolako jabetza pribaturik ere", dio hezkuntza proiektuak. Eta irakasleek gehitzen dute: "Eskola irekiago bat nahi zen, denontzat, eta auzoetan kokatua, hau da, haurrak bizi diren lekuetan. Hori horrela, auzo guztietan joan ginen gelak zabaltzen".

Elizatxo auzoa izan zuten aurreneko kokaleku; horretarako, "herritar batek lokala utzi zigun". Hurrengoak ere, beste auzo batzuetan izan ziren: Floridan, Elizak utzitako lokal batean; eta Zikuñagan, auzoko familien seme-alabek eskolak euskaraz jasotzeko nahiari erantzuteko hainbat gela ireki zituzten.

Segituan, ordea, ireki zituzten gela gehiago, izan ere, "urte horietan hazkundea ikaragarria izan zen; kontuan izan behar da, *baby boom*aren hamarkadak ere bazirela, eta urtero 7-8 gela ireki behar izan genituen".

Ez zuten behar adina lokalik, beraz, urtero borrokatu behar izaten zuten horiek lortzeko. Borroka horietako batean, ez ziren bakarrik egon: "Publikotasuna lortzeko bideak Udalaren Hezkuntza Batzordera eraman gintuen. Bilera horietan, hiltzen ari zen Gay Mur ikastetxe publikoaren artean eta gure artean sintonia bat sortu zen. Orduan, ikusirik beraiek hiltzera zihoazela eta gu eraikinen beharrean geundela, erabaki genuen Parador eraikina bi eskolen artean okupatzea, eta haur hezkuntza bateratua jartzea bertan. Sortu zen nolabaiteko elkarlan bat gure artean, eta ondorioz, gelditzen ziren ikasle guztiak guregana pasa ziren".

Horren ondoren, Parador ere txiki geratu zitzaien, eta Gay Murreko eraikin txikia hartu zuten, 5 urteko gelak jartzeko.

San Antonio Paradorea eta Gay Mur txiki

Laubidieta eta
Meabe eraikinak,
eta Bidebieta plazako eskola.

Heziketa prozesu integralaren alde

Ez da, ordea, Langile Ikastolak gauzatutako elkarlan bakarra. 70.eko hamarkadaren bukaeran, herrian bi haurtzaindegi zeuden, Atzieta eta Txirrita, eta horiekin elkartzeko saiakera bat ere egin zuten. Izan ere, "Langilek beti aldarrikatu du heziketa prozesuak integrala izan behar duela, 0tik 14ra bitarte". Legez onartua izan ez bazen ere, praktikan behintzat, gauzatu zela diote.

Ildo beretik eutsi zion Langile Ikastolak 90.eko hamarkadan LOGSE legea indarrean sartu zenean ere. Lege berriarekin, derrigorrezko hezkuntza 14 urtera arte izatetik, 16 urtera bitartekoa izatera pasa zen, eta Hernaniko Eskola Maparen arabera, hiru eskola publikoek izan zuten aukera Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza ezartzeko, tartean, Langile Ikastolak. Urte batzuk lehenago egin zuen bezala, oraingoan ere eskolako komunitateak legea Langile Ikastolaren testuingurura egokitzen saiatu zen: "Indar eta esperientzia handia jarri zen, antolaketa eta pedagogia aldetik, Langilek nahi zuen hezkuntza-eredua garatzeko", onartzen dute.

Lehenengo eraikina, 1982ko Kilometroak ekimenari esker

Aurreneko eraikinak bi gertaera horien artean ireki zituen ateak. Hain justu, Kilometroak ekimena burutu zen Hernanin 1982. urtean, eta festa hark jarri zion lehenengo alea egungo eraikinetako bati: "Lortutako dirua Udalari eman zitzaion lurzorua erosi zezan, gero Hezkuntza Sailak guretzat eraikin bat eraiki zezan". Dena den, urte batzuk pasa ziren Laubidietak aurreneko eskolak hartu zituen arte; hain zuzen, 1986ko irailean ireki zituen ateak Langile Ikastolaren eraikin zaharrenak, 1986-1987 ikasturterako.

Eraikin horri, beste bi gehitu zitzaizkion aurrerago: Meabe, lehenengo, 1996ko irailean, eta azkenik Bidebieta, 2004ko irailean. Egun, hiru eraikin hauetan 700dik gora ikasle jasotzen dituzte.

Publikotasuna errealitate 1994an

Lehen esan bezala, hasiera-hasieratik izan zuen Langile Ikastolak izaera publikorako joera, eta 1994an batu zen sare publikora. Dena den, 1981-1982 ikasturtetik zeramatzan beste hainbat ikastolekin batera, pedagogia taldeekin eta beste hainbat norbanakorekin batera, Euskal Eskola Publiko Bakar baten alde lanean, EEPA kolektiboaren barruan: "Eusko Jaurlaritzak egindako legeak ez zituen asebetetzen kolektiboaren beharrak, horregatik, zalantzak eta eztabaidak sortu ziren", onartzen dute. Baina pausoa ematea adostu zuten; beti ere, aldarrikapenak eta kezkak alde batera utzi gabe. Horren ondorioz sortu zen *Ikasbatuaz* mugimendua, publifikatutako ikastolekin batera sortutakoa.

Urte batzuk pasa dira ordutik, baina Langile Ikastolak duela 50 urte amesten zuen euskal eskola publikoaren aldeko borrokak ez du etenik izan. *Ikasbatuaz* mugimenduari *Sortzen Ikasbatuaz* Elkarteak eman zion jarraipena, Nafarroako Sortzen Elkartearekin batzearen ondorioz sortua. Izan ere, publifikazioak ere izan ditu eraginak eskolaren ibilbidean, eta bereziki, diote, "pertsonalaren kudeaketan". Hori ez da, ordea, eskola publifikatu ondoren, Langile Ikastolak izan duen kezka bakarra: "Ikastetxe honek borroka asko egin du ikastetxeen autonomia aldarrikatzeko eta administrazioak ikastetxe bakoitzaren hezkuntza proiektua errespetatu dezan", azaltzen dute irakasleek.

Amesten jarraitzea, etorkizunerako desioa

50 urte hauek pasa arren, irakasleek uste dute sorrerako oinarriak mantentzen dituela, eta "ez duela iparra galdu". Dena den, haien ustez, egokitzen jakin du; izan ere, "historian ez da ezer geldirik egoten, eta eskolak ere ezin du egon, garai berrietara egokitu behar da". Eta hor egongo da gakoa: "Momentu batean hau amets bat izan zen, eta amestu genuenok egin dugu bidearen zati bat, eta gelditzen direnek edo datozenek jarraitu beharko dute bide hori egiten edo amesten". Agian, beste 50 urtez.

50. URTEURRENA OSPATZEN

Txupinazoarekin lehertuta, kamiseta, abesti eta guzti!

Nahiz eta 50 urteak 2020arekin bete, 2019-2020 ikasturte osoan zehar ospatu dute; COVID-19 gaitzak martxotik aurrerako jarduerak bertan behera uztea ekarri zuen arte. Horiek, ordea, aurrerago egitekoak dira, izan ere, **"50 urte ez dira erraz betetzen!"**

Ikasturte berezia izan da 2019-2020koa Langile ikastolako ikasle, irakasle eta familientzat, eta behar den bezala ospatzeko asmoz egitarau are bereziagoa osatu dute. COVID-19 gaitzaren eraginez, martxoaren 13an bertan behera utzi behar izan zituzten aurrez aurreko ekimenak, baina horietako batzuk online egiteko modua ere asmatu dute, ospakizunak jarrai dezan!

Txupinazoa, azaroan

Egitarau berezi horri hasiera emateko, txupinazoa egin zuten hasteko, Meaben eta Laubidietan, ikasle eta irakasle guztiekin. Hasiera "sinbolikoa" izan zen, aurretik zetorren guztiaren iragarle. Izan ere, hasierako asmoa izan da ospakizuna ikasgeletatik herrira zabaltzea, baita lortu ere.

Hamaika ekintza, batzuk atzeratuta

Denera hamabost ekintzako programa antolatua zuen 50. urteurrenerako espreski osatutako batzordeek. Martxoaren 13ra bitarteko ekintzak antolatu moduan egin ahal izan dituzte; ordutik aurrerakoak, aldiz, birplanteatu behar izan dira: batzuk, online baliabideen bidez egokitu dituzte; beste batzuk, aldiz, atzeratu behar izan dituzte, data zehatzik jarri gabe.

Esan bezala, txupinazorekin eman zioten hasiera festari azaroaren 15ean, eta hausnarketarako baliatu zuten 2019ko urte bukaera. Célestin Freinet pedagogo frantsesak Langile Ikastolaren sorreran izandako eraginaz mahai-ingurua egin zuten azaroaren 19an; gurasoen paperaz solastu zuten, abenduaren 10ean; eta otsailaren 15ean "Neskak eta mutilak berdin hezten al ditugu?" izenburupean jardunaldia egin zuten. Azken hau izan zen, hain zuzen, egitarauak zehaztu bezala burutu ahal izan zuten azkenekoa.

Egitarauari heltzeko asmoa, aurrerago

Koronabirusa dela-eta, ekintzak bertan behera utzi behar izan zituen ikastolak, baina egoera bere onera itzultzean, egitarauari heltzeko asmoa dute: "50 urte ez dira erraz betetzen!", diote. Gainera, ospakizun borobila izateko lanean eman dituzte azken hilabeteak. Besteak beste, 30tik gora lagunek parte-hartzen duten dokumentala grabatu dute, ikastolaren historiaren inguruko antzerkian ere buru-belarri aritu dira lanean, eta ikasle eta irakasle ohien bazkarietarako lanak ere bideratuta zeuden.

Abesti berriaren bideoklipa, sarean

Ospakizunaren bueltan berregokitu den ekintzarik ere bada. 50. urteurrena dela-eta, abestiaren egin dute: Unai Agirre bertsolariak egin du letra, eta Joxan Goikoetxea musikariak jarri dio musika; biek, haien borondatez. Abestia eskolan aurkeztu zuten, baita bideoklipa grabatu ere, egungo ikasleekin, irakasleekin eta familiekin eta ohiekin. Hura aurkezterik ez da izan, beraz, online bidez egin behar izan dute. Sarean jarri dute, eta sekulako arrakasta zuela ikusita, karaoke moduan ere eskaini dute, etxekoekin abesteko moduan. Ospakizuna, beraz, kaleetara bakarrik ez, etxeetara ere iritsi da!

Kamisetak, txapak eta motxilak, logo berriarekin

Horrez gain, 50. urteurreneko logoa ere egin dute, eta Langileren hiru eraikinetan dago jarria. Ikasle, irakasle eta familiek izan dute aukera, baita ere, logoa beren etxeetan izateko. Izan ere, ikasturte hasieratik salgai izan dira 50. urteurreneko kamisetak, txapak, baita motxilak ere. Dudarik gabe, Langile ikastolaren urteurren berezi honen lekuko!

LANGILERA

Ideia handiak txiki
Izan ziren behin batean
Ideia handi ta txiki
Elkarganatu
Elkarbanatu
Dira gure atean

Txikiak handitu dira
Hizki xehez hizki larriz
Batera handi ta txiki
Elkarganatu
Elkarbanatu
Borobilean jarriz

LANGILERA
Asmo ta bilera
Ausardia, lana
Lagun berri bana
LANGILERA
Guztion bilera
Exeri korroan
Ametsak zorroan
LANGILE DA

Txispa bat sorrarazi du
Elkar osatzeko grinak
Guraso, irakasle, haur
Elkarbanatu
Elkarganatu
Su hortan bat eginak

LANGILE IKASTOLA

LANGILERA
Asmo ta bilera
Ausardia, lana
Lagun berri bana
LANGILERA
Guztion bilera
Exeri korroan
Ametsak zorroan
LANGILE DA

Behin, oroitzen naiz zein, hazi bat erein
Txispa hura hazi zedin jira eta bira
Gu, segiko degu
Gaurtik biharrera soka horri tira,
TIRA!

LANGILERA
Asmo ta bilera
Ausardia, lana
Lagun berri bana
LANGILERA
Guztion bilera
Exeri korroan
ametsak zorroan
LANGILE DA

50.

JOXAN GOIKOETXEA
(musika, pianoa, akordeoia, sintetizadoreak, programazioak, moldaketak eta grabaketa arduraduna)

UNAI AGIRRE
(letra)

Ahotsak:
- Eider Tolosa
- Lierni Tolosa
- Naroa Jaka (Laiotz)
- Uxue Amonarriz (Huntza)
- Ainhoa Larrañaga
- Nahia Valle
- Javier Sancerni
- Eñaut Agirre

Musikariak:
- Agus Garmendia (gitarra).
- Beñat Allur (gitarra).
- Aitor Huizi (biolina eta biola).
- Javi Morcillo (bateria).
- Enara Morcillo (dultzaina).
- Bittor Carrera (dultzaina).
- Aitor Zabaleta (baxua).
- Ion Mari Beasain (gitarra).
- Iosune Marin (gitalele).

Grabaketa osagarriak:
Peio Gorrotxategi - Aieka estudioa (Ereñotzu).

Nahasketak:
Mikel F. Krutzaga - MusiKart estudioa (Amezketa)